



ZIZURKILGO UDALA

OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: **2016ko uztailaren 27a, asteazkena**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: **27 de Julio de 2.016, miércoles**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2016.05.30).

2.- 2015eko AURREKONTUEN KONTU OROKORRA ONARTZEA.

3.- ZIZURKILGO BAILAREN MUGAKETA ETA HELBIDE BERRIEN ONARPENA.

4.- ZIZURKILGO BERDEGUNEEN MANTENTZERAKO LOREZAINZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEA, LIZITAZIO DEIALDIA EGITEA ETA ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA ONARTZEA.

5.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2016/72tik 2016/115era).

6.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

ORDEN DEL DÍA

1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (30.05.2016).

2.- APROBACION DE LA CUENTA GENERAL DEL PRESUPUESTO DE 2.015

3.- APROBACION DE LA DELIMITACIÓN DE BARRIOS Y DE NUEVAS DIRECCIONES.

4.- APROBACION DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACION DEL SERVICIO DE JARDINERIA PARA EL MANTENIMIENTO DE ZONAS VERDES DE ZIZURKIL, REALIZAR LA CONVOCATORIA DE LA LICITACIÓN Y APROBACION DEL PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES.

5.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (72/2016 al 115/2016).

6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Zizurkilen, 2016ko uztailaren 21ean

Alkatea.

Zizurkil, 21 de Julio de 2.016

El Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

**2016ko UZTAILAREN 27an EGINDAKO
OHIKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DIA 27 DE JULIO DE
2.016**

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA/ALCALDE:

José María Luengo Zapirain Jauna (EH Bildu)

ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:

Maite Amenabar Alkorta (EH Bildu)

Jon Ander Esnaola Arruti (EH Bildu)

Eva Usandizaga Mujika (EH Bildu)

Arkaitz Zaldua Jauregi (EH Bildu)

Olga Aldaz Carretero (E.A.J.-P.N.V.)

José Antonio Sánchez Almaraz (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak)

Aitor Sarasua Arruti (EH Bildu)

IDAZKARIA /SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamaseiko uztailaren hogeita zazpiko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. María Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.), Jesús María Alkorta Etxezarreta (E.A.J.-P.N.V.) eta Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela lege ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**1.- AURREKO UDALBATZARRAREN
AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA
(2016.05.30).**

Udalbatzak, ahobatez, erabaki du 2016ko maiatzaren 30ean egindako Bilkuraren Akta onartzea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día veintisiete de Julio de dos mil dieciséis, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales María Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.), Jesús María Alkorta Etxezarreta (E.A.J.-P.N.V.) y Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.)

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL
ACTA DEL PLENO ANTERIOR
(30.05.2016).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Acta del Pleno celebrado el día 30 de Mayo de 2.016



ZIZURKILGO UDALA

2.- 2015eko AURREKONTUEN KONTU OROKORRA ONARTZEA.

Espedientea ikusirik eta jakinda 2016ko maiatzaren 30ean Udal honetako Kontuen Batzorde Bereziak 2015 ekitaldiko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari aldeko txostena eman ziola.

Aipatutako Kontua jendeaurrean jarria izan zen 15 eguneko epean eta alegazio edo erreklamazio bat ere ez zen aurkeztu.

Kontuan hartuta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63 artikuluari jarraiki, Udalbatzari dagokiola Kontu Orokorrak onartzea.

Ondoren, Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamena onartzeko. Hau da emaitza:

- Alde: 8 (6 de Bildurenak, 1 de E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzarrak, aho batez, erabaki du:

Lehen.- 2015 ekitaldiko Aurrekontuaren Kontu Orokorra behin betirako onartzea.

3.- ZIZURKILGO BAILAREN MUGAKETA ETA HELBIDE BERRIEN ONARPENA.

Hernandorena Kultur Elkartek egindako "Zizurkilgo bailara historikoen toponimiaren egokitzapenerako eta erabilerako Proposamena" lanean oinarritutako proposamena aurkeztu da.

Ingurumena eta Nekazaritzaren Batzorde Informatzailearen aldeko irizpena ikusi da.

2.- APROBACION DE LA CUENTA GENERAL DEL PRESUPUESTO DE 2.015

Visto el expediente y resultando que el día 30 de Mayo de 2.016 la Comisión Especial de Cuentas de este Ayuntamiento emitió informe favorable sobre la Cuenta General del Presupuesto de 2.015

Expuesta dicha Cuenta al público por plazo de 15 días, resulta que no se han presentado alegaciones ni reclamaciones.

Considerando que es competencia del Pleno la aprobación definitiva de la Cuenta General, a tenor de lo establecido en el artículo 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 8 (6 de Bildu, 1 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda:

Primero.- Aprobar definitivamente la Cuenta General del Presupuesto del ejercicio de 2.015

3.- APROBACION DE LA DELIMITACIÓN DE BARRIOS Y DE NUEVAS DIRECCIONES

Se da cuenta de la propuesta presentada, basada en el trabajo "Zizurkilgo bailara historikoen toponimiaren egokitzapenerako eta erabilerako Proposamena", elaborado por Hernandorena Kultur Elkartea.

Visto el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Medio Ambiente y Agricultura.



ZIZURKILGO UDALA

Ondoren, aipatutako Hitzarmena onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

- Alde: 8 (6 de Bildurenak, 1 de E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzarrak, aho batez, erabaki du:

Lehenengoa.- Auzoen muga berriak eta helbide berriak onartzea. Akta honetako I. eranskinean ageri dira.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, hoguei eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Epe horretan espedientea interesdunen eskura egongo da udal-bulegoetan, alegazioak jarri ahal izateko.

4.- ZIZURKILGO BERDEGUNEEN MANTENTZERAKO LOREZAINZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEA, LIZITAZIO DEIALDIA EGITEA ETA ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA ONARTZEA.

Zizurkilgo berdeguneen mantentzerako lorezaintza zerbitzua berriz kontratzearen beharra ikusi da.

Ikusi dira Idazkaritza-Kontuhartzaitetikan egindako txostenak.

Espedientean dauden Baldintza Administratibo Partikularren Plegua eta Baldintza Teknikoen Plegua ikusi dira.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 8 (6 de Bildu, 1 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda:

Primero.- Aprobar la nueva delimitación de barrios y nuevas direcciones, que se exponen en el Anexo I de este Acta.

Segundo.- Someter el expediente al trámite de información pública, durante el plazo de 20 días contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, plazo durante el cual el expediente se encontrará a disposición de los interesados en las oficinas municipales a efectos de formulación de alegaciones.

4.- APROBACION DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACION DEL SERVICIO DE JARDINERIA PARA EL MANTENIMIENTO DE ZONAS VERDES DE ZIZURKIL, REALIZAR LA CONVOCATORIA DE LA LICITACIÓN Y APROBACION DEL PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES.

Visto que se ha detectado la necesidad de volver a contratar el servicio de jardinería para el mantenimiento de zonas verdes de Zizurkil.

Vistos los informes de Secretaría-Intervención que constan en el expediente.

Vistos los Pliegos de Condiciones Administrativas Particulares y de Condiciones Técnicas que constan en el expediente.



ZIZURKILGO UDALA

Sozioekonomia eta Zerga Politikako Batzorde Informatzailearen aldeko irizpena ikusi da.

Aurreko guztiagatik, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 110 artikuluan ezarritakoaren arabera, Udalbatzak, aurkeztutako proposamena onartzeko dagokion bozketa egin du, eta hau da emaitza:

- Alde: 8 (6 de Bildurenak, 1 de E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Lehen.- Zizurkilgo berdeguneen mantentzerako lorezaintza zerbitzua kontratatzeko espedienteak onartzea.

Bigarren. Zerbitzu kontratu hau arautuko duen Baldintza Administratibo Berezien Plegua eta Baldintza Teknikoen Plegua onartzea. Aldi berean ohiko prozedura irekizko deialdia iragaritzen da, nahiz behar den guztia atzeratu egingo den, baldintza berezien agiriaren eta dokumentazio teknikoaren aurka erreklamaziorik aurkeztuko balitz.

Hirugarren.- 259.200 euroko, gehi dagokion BEZaren gastua onartzea aurtengo Aurrekontuko dagokion partidaren kontura eta kontratua irauten duen bitarteko urteetarako kontsignazioa egitea.

Laugarren.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen Perfilean argitaratzea lizitazio-iragarkia, hoguei (20) egun naturaleko epean egoki iriztitako proposamenak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Visto el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Socioeconomía y Política de Impuestos.

Por todo lo anterior, de conformidad con lo establecido en el artículo 110 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, la Corporación procede a realizar la votación correspondiente para la aprobación de la propuesta presentada, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 8 (6 de Bildu, 1 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que, por unanimidad, la Corporación acuerda:

Primero.- Aprobar el expediente de contratación del servicio de jardinería para el mantenimiento de zonas verdes de Zizurkil.

Segundo.- Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el Pliego de Prescripciones Técnicas que regularán el presente contrato de servicio. Simultáneamente se anuncia convocatoria por procedimiento abierto ordinario, si bien la licitación se aplazará, en caso necesario, en el supuesto de presentación de reclamaciones contra el pliego de cláusulas administrativas particulares y documentación técnica.

Tercero.- Autorizar el gasto de 259.200 euros, más el IVA correspondiente, a cargo de la partida correspondiente del presupuesto del presente año y la consignación para los presupuestos de los años siguientes en los que esté en vigor el contrato.

Cuarto.- Publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el Perfil de contratante anuncio de licitación, para que durante el plazo de veinte (20) días naturales puedan presentar las proposiciones que estimen pertinentes.



ZIZURKILGO UDALA

5.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2016/72tik 2016/115era).

2016ko maiatzaren 31tik uztailaren 14ra Alkateak sinatutako 2016/72tik 2016/115era zenbakia duten Dekretuen berri eman da. Jatorrizkoak, Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

6.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

José Antonio Sánchez (SV-ES) zinegotziak Udalak Zubimusu Ikastolarekin sinatutako hitzarmenari buruz informazioa eskatu du.

Alkateak erantzun dio, hitzarmena udal bulegoetan dagoela eta nahi duenean aztertu dezakela.

Alkatea Olga Aldaz Carretero (E.A.J.-P.N.V.) zinegotziari zuzendu zaio, eta adierazi dio ez dagoela gustura Villabonako Udalak hainbat komunikabidetan zabalduko albistearekin. Albiste horren arabera, Zizurkilgo Udalean bi kide daude lanaldi osoz liberatuta, urteko 40.000 euroko soldatarekin.

Udal honetako zinegotzi izanik, ondo daki Alkatea lanaldi osoz dagoela liberatuta, baina Maite Amenabar zinegotzia lanaldi erdiz liberatuta dagoela, eta, hortaz, aipatutako soldataren erdia jasotzen duela.

Galdetu dio ea bera Villabonako Alkatearen aholkularia izanik, ezin zuen esku hartu gai horretan eta huts-egite hori argitu, albistea argitaratu aurretik. Albistea argitaratu ostean, benetakoak ez diren datuak erabiliz, kaltea eginda dago jada.

Bere ustez ez da oso etikoa Villabonako Alkatearen jarrera; izan ere, beste udal batzuetako datuak erabili baititu, datu faltsuak gainera, berari eta bere Udalari eragiten dion erabaki bat justifikatzen saiatzeko.

5.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (72/2016 al 115/2016).

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 72/2016 al 115/2016 firmados por la Alcaldía entre el 31 de Mayo y el 14 de Julio de 2.016, cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

El concejal José Antonio Sánchez (S.V.-E.S.) solicita información sobre el convenio suscrito por el Ayuntamiento con la Ikastola Zubimusu.

El Alcalde le comunica que, cuando quiera, puede examinar dicho convenio, que está en las oficinas municipales.

El Alcalde se dirige a la concejala Olga Aldaz Carretero (E.A.J.-P.N.V.), y le expresa su malestar por la noticia difundida en varios medios de comunicación por el Ayuntamiento de Villabona, en la cual se decía que en el Ayuntamiento de Zizurkil hay dos corporativos liberados a jornada completa, con un sueldo de 40.000 euros anuales.

Ella, que es concejala de este Ayuntamiento, bien sabe que la liberación es total para el Alcalde, pero que es de media jornada para la concejala Maite Amenabar, a la que le corresponde también la mitad del sueldo referido.

Le pregunta si ella, que es asesora de la Alcalde de Villabona, no podía haber intervenido y hablar aclarado el error antes de que esta noticia se publicara. Una vez publicada la noticia, con datos que no son reales, el daño ya está hecho.

Considera que no es muy ética la actitud de la Alcalde de Villabona de utilizar datos de otros ayuntamientos para intentar justificar una decisión que le afecta a ella y a su ayuntamiento, máxime cuando los datos aportados son falsos.



ZIZURKILGO UDALA

Alkateak eskatu dio, Villabonako Alkatearen aholkulari izanik, eska diezaiola alkateari argitaratutako datuak zuzenduko dituen ohar bat kaleratzeko komunikabideetan.

Olga Aldaz zinegotziak erantzun dio ez zaiola egokia iruditzen Zizurkilgo Udaleko osoko bilkuran berari aurpegira botatzea beste udal batean gertatutako kontu bat, ez eta lana nola egin behar duen esatea ere. Udal honetako zinegotzi delako dago hemen, alde batera utzita bizitza partikularrean Villabonako Udalean lan egiten duela.

Gai horrek Villabona eta Zizurkilgo Udalei eragiten die, eta, hori dela eta, egoki baderitzo, Zizurkilgo Alkateak Villabonako Udalari edo Villabonako Udaleko Alkateari eskatu behar dizkio azalpenak, ez udal hartako langile bati.

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta berrogeita bost minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

O.I.
ALKATEA.

Vº Bº
EL ALCALDE.



El Alcalde le pide que en su calidad de asesora de la Alcalde de Villabona, le pida a ésta que publique en los medios de comunicación una nota rectificativa de los datos publicados.

La concejala Olga Aldaz le contesta diciendo que no le parece apropiado que en un Pleno del Ayuntamiento de Zizurkil se le recrimine a ella por algo que ha sucedido en otro ayuntamiento y menos que se le diga cómo debe hacer su trabajo. Ella está aquí como concejala de este ayuntamiento, independientemente de que en su vida particular trabaje en el Ayuntamiento de Villabona.

Este tema afecta a los ayuntamientos de Villabona y Zizurkil, y, si así lo considera, el Alcalde de Zizurkil debería pedir explicaciones al Ayuntamiento de Villabona o a su Alcalde, no a una trabajadora de ese ayuntamiento.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y cuarenta y cinco minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.